

martutene

Etxe babestuak Artolategin

artolategiko lurretan 117 etxebizitza eraikitze baimena eman du aurtengo urtarrilean Gobernu Batzordeak. Berezitasuna, lehen aldiz enpresa pribatuak merkatu askea alde batera utzi eta babes ofizialeko etxebizitzaren aldera jartzean datza. Era guztietako iritziak sortu ditu erabaki honek.

Lur sailak 16.960 metro karratu ditu eta eskola publiko/ikastola eta Urumea ibaiaren artean egongo da. Etxebizitzek 70 eta 90 metro artean izango dituzte, bi edo hiru logela eta elbarrituentzako egokituta egongo dira.

Aparteko bi bloke izango dira, baju bat, lau solairu eta bi atiko. Bloke bat, lineala izendatutakoa, lauki zuzena izango da eta bertan 7 portal eta 97 etxebizitza egongo dira. Bestea berriz, «dorrea» deitzen dutena, 20 etxebizitzez osatuko da.

ELI BETELU (TFNOA.: 467691)



Artolategiko lur honetan 97 etxebizitza eraikiko dira.

herrera

Mendi-Zaleak mendi elkarrekin datorren igandeko, hilak 16, Durango aldera prestatu du txangoa. Oraingoan Dima, Leungana, Artaxagan, Mugarra eta Mañaria aldera joango dira.

Ibilaldia San Luis plaza-teratik aterako da, 07.30etan eta 1.300.pezetako prezioa du.

Indusitik abiatu eta Bizkaiako Balzola ingurura joango dira mendigoizaleak. Balzola kobazuloez betetako lekua dugu.

Aterpea, auzoko Zahar Etxeak, aurtengoan ere 1996. urtean zehar 80-90 urte bitarte bete dituzten aiton-amonei omenaldi bazkari bat prestatu die, otsailaren 14rako. Oraingo honetan hamairu pertsona izango dira omenduak, zazpi emakume eta sei gizon. Versailles jatetxean izango da omenaldibazkaria 14.00etan, eguerdiko 12.00etan Meza Nagusia entzun ondoren.

90 urteko Vitonino Urdanibia Iturriza eta Maria Luisa Sarasola senar-emazteak daude omenduen artean, eta 80 urtekoak berriz, Maria Consuelo Arbiza, Manuel Blades, Maria Pilar Eguzkiza, Matilde Fuentes, Maria Goienetxe, Jose Miguel Landa, Maite Oteiza, Maira Perez, Daniel Kintana, Angel Robles eta Francisco Sansinena dira.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Otzaran
taberna

Astero MUS TXAPELKETA
Ogitarteko eta pintxoak

Klaudio Delgado doktorea /
Tfn. 29.11.53

KANPINA

ASOLAZE

ISABA - BELAGOA BAILARA (NAFARROA)
Tfn. 948 - 89 30 34 / 89 32 34 Faxe: 948 - 89 30 34

6 lekutako 3 bungalow / 60 lekutako albergea, 3 - 5 - 6 - 7 - 8 ohedun logeekin

Jolas eta joko gela, bilarra, ping-pong / Sukaldea zure esku

Akanpatzeko 400 plaza / Taberna - Jatetxea - Supermerkatua

Garbiketa zerbitzua / Ekintzak: kanoi jaitsierak, zaldi ibilaldiak, senderismoa, espeleologia, eta abar.

